

Aspertzeko betarik ez

Eguberrietan Donostiako haur eta gazteak ez dira aspertuko. Izan ere, auzoetako talde eta elkarteek hamaika ekitaldi antolatu dituzte oporretarako. Jolasak, tailerrak, antzerkia... Badago non aukeratu! Hona hemen adibide batzuk.

Aiete

Larunbatean, hilak 20, gabon kanta lehiaketa egingo dute haurrentzat, Etxadiren egoitzan. Bestalde, urtarrilaren 5eko arratsaldeko koreografia lehiaketa, dantzarako dohainak erakutsiko dituzte.

Altza

Altzako gazteek era guztietako tailerrak izango dituzte opor hauetan. Graffitiak, kamisetak tindatzea, larrua lantzea... Abenduaren 30eko arratsaldean graffiti festa egingo dute Casares Kultur Etxean. Haurrak, berriz, eskulanean trebatuko dira.

Amara

Dardo txapelketa eta rol jokoen jardunaldiak dira gazteentzako prestatutako ekitaldi nagusiak. Haurrentzat, "Kike, Blas eta Jonas" pailazoak arituko dira abenduaren 22ko goizean, Amara Zaharreko frontoian. 29ko arratsaldean, ipuin kontalariak izango dituzte Ikasbide kultur elkartearen.

Antigua

Abenduaren 26ko goizean Herri Kirolak izango dira gazteentzat. Abenduaren 23an, 17.00etan, "Doraemon eta maien inperioa" filma emango dute haurrentzat Lugaritzen.

Añorga

Abenduaren 26an, 16.00etan, haurrentzako jolasak egingo dira frontoian. Urtarrilaren 3an, "Poxpola, Mokolo eta Konpainia" pailazoen emanaldia izango da, 17.00etan kultur etxean.

Bidebieta

Beldurrezko zinema ikusi eta futbitoan ariko dira gazteak abenduan. 29an, gainera, swing dantza, tatuai eta makillaje tailerra izango dute 17.00etatik aurrera Parke Berrian. Haurrek ere era guztietako



tailer eta jolasak izango dituzte. Abenduaren 28ko eguerdian, bestalde, Gabonetako Tonbola handia jarriko dute frontoian.

Egia

Abenduaren 27an, arratsaldean, gazteentzako bakarriketak egingo dira Gaztelekuan. 30eko goizean, berriz, DJ tailerra emango dute. Abenduaren 26, 29, 30 eta 31n, koloreekin lotutako jolasetan ariko dira Antxetaren haurtxokoan.

Gros

Abenduaren 24an, hiru dimentsiotako postalak egin eta pinua apainduko dute haurrek, Txofre plazan. Bestalde, ekimen honetatik kanpo, Gazte Asanbladak ere ekitaldi bat antolatu du: herri kirolak gazteentzat Santo Tomas egunean.

Intxaurren

Haurrak eta gazteak Olentzeroren bila ariko dira abenduaren 24ko arratsaldean.

Kale kantoitik

Betizu festa

Abenduaren 23an, 17.30ean, Betizu Festa egingo dute Ategorrietako Zuhaitz Ikastetxe publikoan. Sarrerak salgai daude. Okenedo eta Larrotxene kultur etxeetan, 4 euro-tan.

Gazteentzako kirolarekin lotutako ekitaldiak egingo dira opor egunetan. Haurrek, berriz, "Nemoren bila" filma oinarritzat hartzen duten jolasak edukiko dituzte.

Loiola

Abenduaren 23an, "Poxpola, Makolo eta Konpainia" pailazoen emanaldia eskainiko dute, 18.00etan kultur etxean. Abenduaren 30ean, makillaje tailerra eta urte bukaerako dantzaldia egingo dute.

Martutene

Haurrentzako eskulangintza tailerrak egingo dira: plastilinazko jaiotza, opari zorroak, dekorazioa... Horrez gain, antzerkia eta jolasak izango dituzte.

Txomin Enea

Abenduaren 23ko goizean postal lehiaketa eta diapositiba tailerra izango dira Haur Txokoan. Abenduaren 26an, haurrek "Sorginak" kale ikuskizunaz gozatuko dute auzoko pistan.